

OÑATIKO JAIXAK 2019

EGITARAUAREN AZALA AUKERATZEKO LEHIAKETA

Oñatiko Udalak 2019ko jaietako egitarauaren azala aukeratzeko deialdia egiten du, ondorengo oinarrien arabera.

OINARRIAK

LEHENA.- Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte.

BIGARRENA.- Teknika librea izango da (argazkia, pintura, marrazkia, collagea, e.a.). Lanak euskarri gogorrean aurkeztu beharko dira. Obra originalak izango dira.

HIRUGARRENA.- Lanaren neurria honako hau izango da: 50x70 zentimetro. Formatu bertikalean.

LAUGARRENA.- Ezinbestekoa izango da testu hau agertzea: Oñatiko Jaixak 2019.

BOSGARRENA.- Lanak Oñatiko Kultur Etxean aurkeztu beharko dira 2019ko ekainaren 20tik uztailaren 15era, 20:00ak baino lehen.

SEIGARRENA.- Lanak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira eta atzeko aldean *leloa* eraman beharko dute. Horrekin batera, kartazal itxi batean parte-hartzailearen datu pertsonalak eta NANaren fotokopia bidaliko dira, eta kartazalaren gainean lanaren *leloa* jarriko da.

ZAZPIGARRENA.- Saria aditu talde batek osatutako Epaimahaiak aukeratuko du. Erabakia alda ezina izango da.

ZORTZIGARRENA.- Lehenengo saria 500 euro izango da.

BEDERATZIGARRENA.- Antolatzaileek ez dute beren gain hartuko lehiaketan parte hartzen duten lanek jasan dezaketen galera edo kaltea.

HAMARGARRENA.- Saritu gabeko lanak epaimahaiaren erabakia jakinarazi ondoren jaso ahal izango dira. Horretarako, HOGEITA HAMAR (30) EGUNEKO epea izango da. Aipatutako epean lanak jaso ezean, egileak galdutzat eman dituela pentsatuko du Oñatiko Udalak; eta ondorioz, egileari inolako eskubiderik aitortu eta ordainik eman gabe, egoki irizten dion moduan erabiliko ditu.

HAMAİKAGARRENA.- Sarituko den lana Oñatiko Udalaren esku geldituko da. Halaber, inprimatzeko, argitaratzeko, ezagutarazteko eta gainontzeko eskubide guztiak Oñatiko Udalak berak izango ditu.

HAMABIGARRENA.- Edozein erreklamazio, zalantza edo apelazio Oñatiko Udaleko Kultura Batzordera bideratu beharko dira.

HAMAHIRUGARRENA.- Lehiaketara aurkezteko, goitik behera onartu beharko dira oinarriak.

HAMALAUGARRENA.- Epaimahaiak honako kasu hauetan utzi ditzake lanak lehiaketatik kanpo:

- Autorea nor den zalantzan dagoenean.
- Aurkezturiko lanak pertsonen duintasunaren aurka doazenean.
- Beste obra batzuen plagiotzat har daitezkeenean.

Aurkezturiko lanetan maila nahikorik ez badago, saririk ez emateko aukera izango du.

*Ez dira onartuko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean xedatutakoa betetzen ez duten lanak, zehazki, sexuaren arabera rolak eta estereotipoak desagerrarazteari buruzko artikulua (3.6. art.) eta komunikazio ez-sexistari buruzkoa (18.4. art.).

*Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.7. artikulua araberak, epaimahaietan ordezkaritza orekatua izan dadin, sexu biek %40ko ordezkaritza izango dute gutxienez.

*Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari jarraikiz, jakinarazten dizugu deialdian jasotako datuak Oñatiko Udalaren ardurapeko izaera pertsonaleko fitxategi batean jasoko direla eta soilik eskari hau kudeatzeko erabiliko direla.